

## HIRI LIFE

### HIRIKO PARKE ETA LORATEGI JASANGARRI ETA ERRESILIENTEAK.

**HIRILIFE Aranzadi Zientzia Elkarteko** sailen arteko proiektu bat da. Honen helburua **hiri-biodibertsitatea ikertzea, dibulгатzea** eta hiri-biodibertsitatea kontserbatzeko eta sustatzeko dagoen beharraz **hehitzea** da.

Gizarteko beste jarduera askotan bezala, lorezaintza ere eredu iraunkorragotara eta atseginagotara aldatzen ari da, bai ekologiararen eta baita ekonomiararen ikuspegitik ere.

**Donostiako** udalerrria kudeaketa-aldaketa sustatzen ari da, **lorezaintza jasangarriago** baterantz. Herriarrok aldaketa hauek ezagutu eta ulertu behar ditugu.



#### HIRIKO BERDEGUNEEN ERRESPEZUKO ERABILERA



**Parke eta lorategietan zarata egitea saihestu:** hiriko parke eta lorategietako biodibertsitatea bertan egiten dugun erabilerarekin erlazionatuta dago. Zaindu eta errespetatu hiriko berdeguneak pertsona guztien onuragatik.



**Fauna ez elikatu:** ogia ez da ahateentzako edo usoentzako elikagaia, gainera, kaltegarriak dira beraientzat.



**Txakurra lotuta edo kontrolpean mantendu:** fauna basatia izutzen eta aztoratzen du.



**Ez utzi katua etxetik ateratzen:** urtero, katuak kanpoaldean milioika animalia hiltzen dituzte munduan.

#### LAGUNDU HIRI-BIODIBERTSITATEA KONTSERBATZEN ETA SUSTATZEN

Biodibertsitatea garrantzitsua da ekosistemen oreka mantentzen duelako. Kontserbatzea onuragarria da, baita, hirietako biztanleen bizi-kalitatea hobetzeko ere.

**Errespetatu Donostiako parke eta lorategiak.**



**aranzadi**  
zientzia elkarte



DONOSTIA  
SAN SEBASTIÁN

## HIRIKO PARKE ETA LORATEGI JASANGARRIAK



## DONOSTIAKO BIODIBERTSITATEA SUSTATZEA



**aranzadi**  
zientzia elkarte



DONOSTIA  
SAN SEBASTIÁN



## FUNTSEZKO IDEIAK

### • HIRI-BIODIBERTSITATEA:

Gure hiri eta herrietan dauden bizi-formen aniztasuna da.

### • KUDEAKETA BEREIZIA:

Kudeaketako ekintzak espazio bakoitzaren berezitasunetara egokitzen ditu. Ingurumena, ekonomia, gizarte eta kulturaren arteko oreka lortzea du helburu.

### • KUDEAKETA BEREIZIA EGITEA FUNTSEZKOA DA BIODIBERTSITATEA KONTSERBATZEKO.

Gure hirietan biodibertsitate handiagoa izateak klima aldaketara egokitzeko gaitasuna handituko du (klima-erresilientzia).



## BIODIBERTSITATEA SUSTATZEKO EKINTZAK

Donostiak kudeaketa berezia aplikatzen du hiriko parke eta lorategietan. Ezinbestekoa da herritarrek ekintza horiek ulertzea eta errespetatzea.



**Fitosanitarioen erabilera murriztea:** Donostiak ez du biozida sintetikorik erabiltzen udaleko berdeguneen kudeaketan, eta alternatiba biologikoen erabilera sustatzen du.



**Zuhaixkak sustatzea:** lorategien egituraren aniztasuna funtsezkoa da fauna-talde desberdinentzat babesleku eta elikagai gisa. Biodibertsitatea sustatzen du eta, beraz, haren balio ekologikoa handitzen du.



**Lurrean zur hila eta orbelaren eskuragarritasuna sustatzea:** funtsezko eginkizuna dute ekosistemetan. Elikagaiak birziklatzen laguntzen dute. Espezie askok beren onurak aprobetxatzen dituzte.



**Animalientzako babeslekuak jartzea:** Espezie askok zuloak erabiltzen dituzte ugaltzeko eta babesteko. Habia-kutxak eta babeslekuak jartzeak hegazti- eta ugaztun-espezie ugari egotea sustatzen du. Animalia horiek, gainera, intsektu eta karraskarien izurriteak kontrolatzen laguntzen dute.



**Belardi eta larreetako landaredia hazten uzteak** aukera ematen die landareei beren zikloa loraketa eta fruituak ematearekin osatzea. Horrek intsektu polinizatzaileak erakartzen ditu, eta horiek, aldi berean, hegazti eta ugaztun txikiak erakartzen dituzte.



**Hezegune txikiak sustatzea:** habitat egoiak dira fauna- eta flora-espezie askorentzat.



**Tamaina libreko zuhaitzak sustatzea. Saihestu kimaketa** umatze-garaietan (martxoa-abuztua).



**Espezie exotikoen sarrera ekiditea.**

